Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urriaren 24a, asteazkena — 205 — Miércoles, a 24 de octubre de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Aizarnazabalgo hiri antolaketako plan orokorreko «Odrinox» 11. HE hirigintza eremuaren hiri antolaketako plan bereziari buruzko ingurumenn txosten estrategikoa.*

1. *Aurrekariak.*

2018ko uztailaren 19an jasotako idatziaren bidez, Aizarnazabalgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu dio igortzeko ingurumen txosten estrategikoa, «Odrinox» 11. HE hirigintza eremuaren hiri antolaketa planari buruzkoa, plan hori une honetan Aurrerapen fasean baitago. Eskaerarekin batera, Plan Bereziaren Ingurumen Dokumentu Estrategikoa igorri du Udalak.

Kontuan hartuta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 6. artikuluan xedatzen duena, Plan Bereziari ingurumen ebaluazio sinplifikatua egin behar zaio; bertan erabakiko da, ukitutako administrazio, pertsona eta erakundeei kontsulta egin ondoren, ingurumenaren gainean eragin adierazgarriak izan ditzakeen eta, beraz, ingurumen azterketa estrategiko arrunta egin behar den, edo, bestela, eragin adierazgarririk ez duen, ingurumen txosten estrategikoak ezarritakoaren arabera.

2. *«Odrinox» 11. HE hirigintza eremuaren hiri antolaketako plan bereziaren helburuak eta proposatutako antolaketa.*

Hiri Antolaketako Plan Berezia (HAPB) planteatu da helburu batekin: aukera ematea altzairu herdoilgaitzeko xafla eta hodia oinarri hartuta, xafla meheko txasisak, bastidoreak eta multzoak eraikitzen dituen Odrinox SL enpresaren instalazioak handitzeko.

«Odrinox» 11. HE hirigintza eremua jasota dago Hiri Antolaketako Plan Orokor (HAPO) berrian; HAPO berriari 2016ko irailaren 6an eman zitzaion hasierako onespena, eta datozen hilabeteotan onetsiko da behin betiko. Kontuan hartuta Odrinox SL enpresak bere instalazioak handitzeko premia bizia duela, enpresak erabaki du Plan Berezia izapidetzeari ekitea. Plan Bereziak eremuaren antolaketa xehatua definituko du, HAPOn definitutako hirigintza arau partikularrak aplikatuz, HAPOren behin betiko onespenari itxaron beharrik gabe.

«Odrinox» 11. HE hirigintza eremua Aizarnazabalgo udalerriaren ekialdean dago, Erribera auzoan, eta muga egiten du Urola ibaiaren ezkerraldearekin. Eremuaren kalifikazio orokorra hiri lurzoruarena da, B.10 (industria eremua) kalifikazio orokorrarekin, eta guztira 19.028,54 m$^2$-ko azalera hartzen du. Bertan, Odrinox SL enpresari aukera ematen zaio egun dituen instalazioak handitzeko, eta, horretarako, 4.828 m$^2$-ko azalera esleitzen zaio, 3.000m2/t-ko eraikigarritasun maximoarekin.

HAPBn proposatutako antolaketak planteatzen du egungo pabiloia ipar-ekialderantz handitzea, Urola ibaiaren paraleloan lerrokatuta, eraikinaren eta ibilguaren artean 15 metroko tartea errespetatuz, baldintza hori ezartzen baitu EAEko ibai eta erre-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del Plan especial de Ordenación Urbana del área urbanística A.U.111 «Odrinox» del P.G.O.U. de Aizarnazabal.*

1. *Antecedentes.*

Mediante escrito recibido el 19 de julio de 2018, el Ayuntamiento de Aizarnazabal ha solicitado a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área Urbanística A.U.11 «Odrinox», que se encuentra en fase de Avance. Junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido el Documento Ambiental Estratégico del Plan Especial.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el Plan Especial debe ser objeto de una evaluación ambiental simplificada, en la que se determine, previa consulta a las administraciones, personas e instituciones afectadas, si puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. *Objetivos y ordenación propuesta en el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área Urbanística A.U.11 «Odrinox».*

El Plan Especial de Ordenación Urbana (PEOU) se plantea con el objetivo de posibilitar la ampliación de las instalaciones de la empresa Odrinox, S.L, dedicada a la construcción de chasis de chapa fina, bastidores y conjuntos, partiendo de tubo y chapa de acero inoxidable.

El ámbito urbanístico A.U. 11 «Odrinox», queda delimitado en el nuevo Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), aprobado inicialmente el 6 de septiembre de 2016 y que se prevé aprobar definitivamente en los próximos meses. Habida cuenta de la apremiante necesidad de Odrinox, S.L. por ampliar sus instalaciones, la empresa ha decidido iniciar la tramitación del Plan Especial, que definirá la ordenación pormenorizada del ámbito aplicando las normas urbanísticas particulares definidas en el PGOU, sin esperar a su aprobación definitiva, de modo que le pueda suceder la del plan PEOU inmediatamente.

El Ámbito Urbanístico A.U. 11 «Odrinox», se emplaza en la parte este del municipio de Aizarnazabal, en el Barrio de Erribera, y limita con la margen izquierda del río Urola. Tiene una calificación global de suelo urbano y con calificación global B.10 (Zona Industrial) y abarca una superficie total de 19.028,54 m$^2$. En ellos, se posibilita a la empresa Odrinox, S.L ampliar sus actuales instalaciones, asignándole a este efecto, una superficie de 4.828 m$^2$ con una edificabilidad máxima de 3.000 m$^2$/t.

La ordenación propuesta en el PEOU plantea una ampliación del pabellón actual hacia el Noreste, en una alineación paralela al cauce del Urola, respetando el retiro de 15 metros de la edificación respecto al cauce que exige el PTS de Ríos y Arro-

EK\CV GAO-I-2018-07006

ken LPSk. Handitzeak hartzen duen azaleraren zati bat 100 urteko errepika denborako uholde arriskuko kotan dago, eta horrek baldintzatu egiten du eremuaren antolaketa. Horregatik, bi fasetako garapena planteatzen da. Lehenengo faseak 2.500 $m^2$-ko azalera hartuko du, 100 urteko errepika denborako uholde arriskuak ukitzen ez duen azalera hain zuzen, eta, hortaz, berehala egin daiteke. Bigarren fasean, berriz, gainerako 500 $m^2$-ak garatuko dira, eta horretarako baldintza izango da aldez aurretik egiaztatzea uholde arriskua murrizteko hobekuntza hidraulikoko neurriak hartu direla. Horri dagokionez, Urola ibaiaren azterketa hidraulikoa Aizarnazabalen (2018) kontuan hartuta, zentral hidroelektrikoaren ondoan ibaian behera dagoen pasabidea eraistea planteatzen da, eremu osoa 100 urteko errepika denborako uholde arriskutik kanpo uzteko.

Lurzatirako sarbide nagusia izango da lurzatiaren mendebaldean dagoen bidea: 16 metroko zabalera izango du, egungo bideak duen plataformari jarraituz. Ingurumen dokumentu estrategikoak dioen bezala, lehenengo faseko 2.500 $m^2$/t-ak soilik eraikiz gero, ezingo da biderik egin lurzatiaren iparraldean. Aldiz, pasabidea eraitsi eta 3.000 $m^2$/t-ak osorik eraikiz gero, urbanizazioak 7,2 m-ko zabalera izango du bidean, eta 20,30 m-koa biratzeko eremuan; horrela, pabiloiaren atzealdean biratu daiteke, ibaiaren eta eraikinaren arteko urbanizazioan.

*3. Kontsulta administrazio eta pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Plan Bereziaren eta ukitutako lurralde eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak interesdun gisa identifikatu ditu eta kontsulta egin die administrazio eta erakunde hauei, organo sustatzaileak prestatutako dokumentazioa bidali ondoren:

— GFAko Kultura Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Errepidetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Bide Azpiegituretako Kudeaketako eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategi eta Industria Administrazio Zuzendaritza.

yos de la CAPV. Parte de la superficie de la ampliación se encuentra afectada por la cota de inundación de los 100 años, lo que condiciona la ordenación del ámbito y por lo que se plantea un desarrollo en dos fases; la primera de 2.500 $m^2$, que no queda afectada por la mancha de inundabilidad de los 100 años y que puede ser ejecutada inmediatamente; la segunda fase corresponde a los 500 $m^2$ restantes y está condicionada a la previa acreditación de que se han ejecutado medidas de mejora hidráulica que han reducido el riesgo de inundación. En este sentido, en base al Estudio Hidráulico del río Urola en Aizarnazabal (2018), se plantea la demolición de la pasarela situada junto a la central hidroeléctrica aguas abajo como la posible actuación para hacer que la totalidad del ámbito esté fuera de la mancha de 100 años de periodo de retorno.

El acceso principal a la parcela se realizará a través de un vial situado en el oeste de la misma, que tendrá una anchura de 16 m, siguiendo la plataforma que tiene el vial actual. Según señala el Documento ambiental estratégico, en el caso de construirse exclusivamente los 2.500 $m^2$/t de la primera fase, no se podrá realizar ningún vial en la parte norte de la parcela. En el caso de ejecutar el derribo de la pasarela y poder desarrollar los 3.000 $m^2$/t, la urbanización tendrá una anchura de 7,2 m en el vial y de 20,30 m en la zona de giro, pudiendo así girar en la parte trasera del pabellón, en la urbanización que separa el río del edificio.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en las características del Plan Especial y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de carreteras de la DFG.

— Dirección de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección de Dirección General de Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energía, Minas e Industria del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2018-07006

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa.

— Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea.

— Iraurgi Berritzen.

— Urkome.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara ornitologia elkartea.

— Espainiako Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazio oro eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus) publikoak oro har eta beste edozein interesdunek ingurumen arloan egokitzat jotako ekarpenak egin zitzaten.

Epe hori amaituta, eta txosten hau ematen den egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du planaren gauzatzeak ez duela eragiten inpaktu nabarmenik osasun publikoaren gainean.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak adierazi du, bestalde, zalantzan jartzen duela Planean planteatzen diren bi faseen independentzia funtzionala; izan ere, lehenengo fasea soilik gauzatuz gero, lurzatiaren iparraldean ezin denez biderik egin, eremu urbanistikoaren funtzionaltasuna konprometituko litzake. Hori gertatuz gero, handitzea bideragarria izateko baldintza izango litzake beste jarduketa bat egitea. Eta ingurumen dokumentu estrategikoan ez da egiten jarduketa horren ingurumen ebaluaziorik, baina eragina izan dezake ibaiaren dinamikan eta natur ondarearen gainean. Beraz, ulertzen du sustatzaileak justifikatu egin beharko lukeela eremuaren bidegintza eta funtzionalitatea, lehenengo fasea soilik gauzatuz gero. Eta pasabidea eraistea ezinbesteko baldintza izango balitz, jarduketa horren inpaktu ebaluazioa Planaren ingurumen ebaluazio estrategikoan txertatu beharko litzake.

Bestalde, adierazten du Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak HAPOri buruz egindako txostenak, izapidetzen ari denak, zera azpimarratzen zuela: planteamenduan zenbait lurzoru birsailkatzea proposatzen zen, besteak beste «Odrinox» 11. HE hirigintza eremua, baina horiek ez zeuden jasota HAPOren ingurumen azterketa estrategikoan eta, beraz, horien inpaktua ez zen aztertu. Hala ere, Plan Bereziaren ingurumen dokumentu estrategikoan garatutako azterketa ikusita, ez du uste alderdi honetan gehiago sakondu behar denik.

Natur ondarearen gaineko afekzioari dagokionez, txostenak adierazten du balio natural handiena duen elementua Urola ibaia eta haren ibaiertza direla. Nahiz eta tarte honetan ez duen berezko balio handirik, kontuan hartu behar dira luzetarako konektibitate ekologikoko fluxuak; eta, ibai tarte horrek duen egoera degradatuagatik hain zuzen, funtsezkoa da eragiketa urbanistikoa ibai ingurunea birsortzeko jarduketekin lotzea, hala nola espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko jarduketekin edo haltzadi kantauriarraren serieko landare autoktonoak birlandatu eta ibaiertza lehengoratzeko jarduketekin.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Consorcio de Residuos de Gipuzkoa (GHK).

— Mancomunidad de Servicios de Urola Medio.

— Iraurgi Berritzen.

— Urkome.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Itsas Enara Ornitologia elkartea.

— Sociedad Española de Ornitología (SEO).

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco informa que la ejecución del plan no presenta impactos de consideración para la salud pública.

— La Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático, por su parte, pone de manifiesto las dudas respecto a la independencia funcional de las dos fases que se plantean en el Plan, ya que en el caso de ejecutarse únicamente la primera fase, al no poderse realizar ningún vial en el norte de la parcela, se vería comprometida la funcionalidad del área urbanística. En ese caso, la viabilidad de la ampliación estaría condicionada a la ejecución de una actuación cuya evaluación ambiental no se realiza en el documento ambiental estratégico y que podría afectar a la dinámica del río y generar afecciones sobre el patrimonio natural. Por tanto, considera que el promotor debería justificar la vialidad y funcionalidad de ejecutar únicamente la primera fase y, en el caso de que el derribo fuera una condición ineludible, debería incluirse la evaluación de impacto de dicha actuación en la evaluación ambiental estratégica del Plan.

Por otra parte, señala que en el informe que emitió la Dirección de Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático sobre el PGOU, que se encuentra en tramitación, se llamaba la atención sobre el hecho de que algunas propuestas de reclasificación de suelo realizadas en el planteamiento –entre las que se encontraba A.U. 11 «Odrinox»– no habían sido contempladas en el estudio ambiental estratégico del PGOU, de modo que su impacto ambiental no había sido analizado. Sin embargo, señala que a la vista del análisis desarrollado en el documento ambiental estratégico del Plan Especial, no se considera necesario profundizar más en este aspecto.

Respecto a la afección sobre el patrimonio natural, el informe señala que el elemento de mayor valor natural lo constituye el río Urola y su ribera que, si bien no alberga en este tramo un gran valor intrínseco, debe tenerse en cuenta en los flujos de conectividad ecológica longitudinal y que, precisamente por el estado degradado que presenta en este tramo, es fundamental que se vincule la operación urbanística con actuaciones de regeneración del entorno fluvial, como la erradicación de especies exóticas invasoras y la restauración de la ribera mediante la revegetación autóctonas de la serie de la aliseda cantábrica.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak Euskal Trenbide Sareari helarazi zion kontsulta, eta honek ohar bat egin zuen, adieraziz proposatutako aldaketak ez duela eraginik Eusko Jaurlaritzaren egungo trenbideetan, ezta aurreikusitakoetan ere.

— Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzak adierazi du jarduketak ez duela nekazaritzako ustiategirik ukituko. Hala ere, balio estrategiko handiko lurzoruen 362 m$^2$ galduko dira, eta trantsizioko landa paisaia azpikategoriako 3.500 m$^2$ inguru; hortaz, kontuan hartuta Nekazaritza-Basogintzako LAPen 10.e artikuluan ezarritakoa, ebaluatu egin behar dira nekazaritza arloko afekzioak.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Aizarnazabalgo Udalari igorriko zaizkio; ondoren jaso daitezkeen erantzunak ere Udalari bidaliko zaizkio lehenbailehen, honek kontuan har ditzan Plan Berezia idatzi eta izapidetzerakoan.

4. Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.

Plan Bereziak hiri eremu baten antolaketa xehatua ezartzen du, pabiloi industrial bat handitu ahal izateko. Jarduera handitzeko beharrezkoa den lurzoruaren sailkapenetik erator daitezkeen ingurumen eraginak, eta horren ondoriozko artifizializazioa eta lurzoru galera aldez aurretik aztertu eta ebaluatu dira, Aizarnazabalgo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren ingurumen eraginaren ebaluazio prozeduran. Ebaluazio horretan zenbait neurri zuzentzaile definitu dira, eremu hau antolatu eta gauzatzerakoan kontuan hartu behar direnak. Neurri horiek guztiak «Odrinox» 11. HEren hirigintzako arau partikularretan jaso dira. Hori guztia kontuan hartuta, Plan Berezia ingurumen eraginaren ebaluazio prozedura arruntari lotu behar zaion ala ez erabakitzeko, Plan Bereziaren bidez egingo den antolaketa xehatutik berariaz ondorioztatzen diren ingurumen eraginak hartu behar dira kontuan.

«Odrinox» 11. HE eremua Urola ibaiaren ezkerraldean dago, ibar batean. Ingurumen dokumentuak egiten duen kalkuluaren arabera, HAPOk 4.828 m$^2$ esleitzeko dizkio, oro har, proposatutako handitzeari. Horietatik 1.119 m$^2$ asfaltatuta daude gaur egun, 317 m$^2$-tan baratze txiki bat dago, 1.617 m$^2$-tan fruta arbolak daude landatuta, lerroan, eta 1.775 m$^2$ zelaia-larrea dira. Urola ibaiaren ertzean zehar platanondoak daude, lerrokadura irekian (Platanus x hispánica), lizarrekin konbinatuta (Fraxinus excelsior); eta horien arteko tarteetan Fallopia japonica espezie inbaditzailea ugaritu da. Belar geruza oso erruderalizatuta dago. Ibaiertzeko landaredia ez dago kontserbazio egoera onean, ez konposizioagatik, ez heldutasun mailagatik, baina, hala ere, hori da antolatu beharreko eremuan babestu eta hobetu behar den ingurumen elementu nagusia, batetik, babes funtzioa betetzen duelako, eta, bestetik, lotura ekologiko gisa funtzionatzen duelako Urola ibaian gora eta behera dauden eta kalitate ekologiko handiagoa duten beste eremuekiko. Landare zerrenda horrek, printzipioz, ez luke aurreikusitako jarduketen ondoriozko eragin negatiborik jasango, eta, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak iradoki duen bezala, eragiketa urbanistikoa ibai ingurunea birsortzeko jarduketekin lotzen bada, elementu honen gaineko eragina positiboa izan daiteke.

Poligonoa handitzeak zuzenean ukituko duen baliabide nagusia da ibarrean dagoen produktibitate handiko nekazaritza lurzorua. Zehazki, «Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen» (1990) arabera II motakoa den lurzoruaren 3.709 m$^2$ galduko dira; gaitasun agrologiko handiko lurrak dira, nekazaritza lanetarako mugarik gabeak. Ingurumen agiriak «moderatu» gisa kalifikatzen du inpaktu hori, kontuan hartuta Urola ibaiaren ibar osoak, Aizarnazabalen, lurzoru mota hori duela, eta lurzoru horren zati bat landare estalkia lehengoratzeko eragiketetarako

— La Dirección de infraestructuras del transporte del Gobierno Vasco, dio traslado de la consulta a Euskal Trenbide Sarea, que emite una nota señalando que la modificación propuesta no tiene incidencia con las líneas ferroviarias del Gobierno Vasco actuales o previstas.

— Por último, la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que no se verá afectada ninguna explotación agraria, si bien se perderán 362 m$^2$ de suelos agrarios de Alto valor estratégico y, en torno a 3.500 m$^2$ de la subcategoría Paisaje Rural de Transición y que, de conformidad con lo establecido en el artículo 10.e del PTS Agroforestal, sería necesario que se proceda a evaluar la afección sectorial agraria.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Aizarnazabal, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del Plan Especial.

4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.

El Plan Especial establece la ordenación pormenorizada de un área urbana para permitir la ampliación de un pabellón industrial. Los efectos ambientales previsibles derivados de la clasificación del suelo necesario para la ampliación de la actividad y la consiguiente artificialización y pérdida de suelo han sido previamente considerados y evaluados en el procedimiento de evaluación ambiental del Plan General de Ordenación Urbana de Aizarnazabal. A través de dicha evaluación, se han definido un conjunto de medidas correctoras que deben tenerse en cuenta en la ordenación y ejecución de este ámbito y que han quedado recogidas en las normas urbanísticas particulares del AU 11 «Odrinox». Considerando lo anterior, en la decisión sobre si el Plan Especial debe someterse a un procedimiento de evaluación ambiental ordinaria, deben tenerse en cuenta los impactos ambientales derivados específicamente de la ordenación pormenorizada adoptada a través del Plan Especial.

El ámbito AU 11 «Odrinox» se ubica en una vega junto al río Urola, en su margen izquierda. Según calcula el documento ambiental, de los 4.828 m$^2$ que el PGOU asigna globalmente a la futura ampliación, 1.119 m$^2$ se encuentran actualmente asfaltados, 317 m$^2$ están ocupados por un pequeño huerto, 1.617 m$^2$ disponen de un cultivo alineado de frutales, y 1.775 m$^2$ se corresponden con un prado-pastizal. A lo largo del borde junto al río Urola aparece una alineación abierta de plátanos de sombra (Platanus x hispánica) combinados con fresnos (Fraxinus excelsior), entre cuyos huecos prolifera la especie invasora Fallopia japonica. El estrato herbáceo está altamente ruderalizado. Si bien la vegetación de ribera no presenta un buen estado de conservación, ni por su composición ni por su grado de madurez, constituye el principal elemento ambiental a proteger y mejorar del ámbito sujeto a ordenación, tanto por su función protectora, como por su papel como conector ecológico entre zonas con una mayor calidad ecológica aguas arriba y abajo del río Urola. Dicha banda de vegetación, en principio, no debería quedar afectada negativamente por las actuaciones previstas y, en el caso de que, tal y como sugiere la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático de Gobierno Vasco, se vincule la operación urbanística con actuaciones de regeneración del entorno fluvial, el impacto sobre este elemento puede ser positivo.

El principal recurso directamente afectado por la ampliación del polígono será el suelo agrario de alta productividad de la vega. En concreto, se perderán 3.709 m$^2$ de suelo de clase II según el «Mapa de Clases Agrológicas de Gipuzkoa» (1990), con unos suelos de alta capacidad agrológica y sin limitaciones para el laboreo. El documento ambiental califica este impacto como «moderado» habida cuenta que toda la vega del Urola en Aizarnazabal dispone de ese tipo de suelo y que es posible reutilizar parte del mismo para las operaciones de restauración de la cu-


EK\CV GAO-I-2018-07006

berrerabili daitekeela, obra amaitzean, eta/edo inguruko nekazaritzako zenbait lurzati hobetzeko, herriko lorategietarako eta abar.

Bestalde, kontuan hartu behar da eremuaren zati batek uholde arriskua duela, eta hori dela handitzea mugatzen duen elementu nagusia; beraz, jarduketak egiteko baldintza izango da jarduketa horiek bateragarriak izatea planifikazio hidrologikoak ezartzen duen erabilera araubidearekin.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen da Plan Bereziak planteatzen duen antolaketa xehatutik ez dela ingurumenaren gaineko inpaktu berririk etorriko, Aizarnazabalgo HAPOren ingurumen ebaluazioan kontuan hartu zirenetatik aparte, eta etortzekotan, horiek ez luketela izango ingurumen ebaluazioaren prozedura xeheago eta sakonagoa eskatzeko moduko garrantzirik.

Hala ere, antolaketa xehatuan xehetasun maila handiagoa definitzen denez, jarduketek eragingo dituzten ingurumen inpaktuak zehaztasun handiagoarekin ebaluatu eta karakterizatu daitezke; gainera, aldi berean, zehaztasun handiagoarekin definitu daitezke aipatu efektuak prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko beharrezkoak diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak. Beraz, beharrezkotzat jo da HAPOn jasotako neurriak aplikatzeko irizpideak ematea, eta Plan Berezian eta plana garatuko duten eraikuntza eta urbanizazio proiektuetan txertatu beharreko baldintza osagarri batzuk definitzea.

Hori horrela, ez da ikusi Plan Bereziak ingurumen eragin nabarmenak izango dituenik, ez bertan planteatutako jarduketen ezaugarriengatik, ez ukitutako eremuaren sentsibilitateagatik. Era berean, duela gutxi Aizarnazabalgo HAPOren ingurumen ebaluazio arrunta egin denez, eta Plan Bereziak xehetasunez antolatzen duen eremua txikia denez, plan horren ingurumen inpaktuaren ebaluazio estrategiko arrunta egiteak ez luke hobekuntza nabarmenik ekarriko, ez ingurumen eraginen identifikazioan eta balorazioan, ez eragin horiek zuzentzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileen definizioan.

Ondorioz, arestian esandako guztiarekin bat etorriz, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluak xedatzen duenari jarraikiz, eta 2016ko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak aurreikusten duena kontua hartuta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek Ingurumen Txosten Estrategiko hau ematen du:

*Lehena.* Ez egitea «Odrinox» 11. HE hirigintza eremuaren Hiri Antolaketako Plan Bereziaren ingurumeneko ebaluazio estrategiko arrunta; izan ere, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako azterketari jarraituz, eta egin diren kontsulten emaitza kontuan hartuta, ondorioztatu da ez dela egongo ingurumenaren gaineko efektu negatibo adierazgarririk, betiere ingurumeneko txosten estrategiko honen bigarren atalean ezarrita dauden baldintzak betetzen badira.

*Bigarrena.* «Odrinox» 11. HE hirigintza eremuaren Hiri Antolaketako Plan Bereziak, eta plana garatuko duen eraikuntza proiektuak, ingurumena babesteko neurri zuzentzaile hauek txertatuko dituzte:

1. Handitzearen bigarren fasea egiteko, lehendabizi egiaztatu behar da murriztu dela bigarren fase horri dagozkion lurren uholde arriskua. Uholde arriskuarekin lotutako arazoak konpontzen ez diren bitartean, eraikuntza eta urbanizazio proiektuak onetsi ahal izateko, sustatzaileak baloratuko du handitzearen lehenengo fasea independentea den, eta egiaztatuko du, hala badagokio, fase hori soilik gauzatzea bideragarria eta funtzionala dela. Eraikuntza eta/edo urbanizazio proiektuak onartzeko, ezinbestekoa da URA Uraren Euskal Agentziaren aldeko txostena izatea, eta jabari publiko hidraulikoan edo ibilguen zaingu-

bierta vegetal al finalizar la obra y/o en la mejora de algunas parcelas agrícolas de los alrededores, ajardinamientos del municipio u otras obras.

Por otra parte, hay que tener en presente el carácter de zona inundable de parte del área, siendo éste el principal elemento limitante de la ampliación, por lo que las actuaciones deberán estar condicionadas a su compatibilidad con el régimen de usos que establece la planificación hidrológica.

